



TESIS DOCTORAL

GORPUTZAK HISTORIOGRAFIAREN ARDATZ: 90eko HAMARKADAKO EUSKAL ARTEAREN IRAKURKETA MATRILINEAL BAT

MAITE LUENGO AGUIRRE

Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

maite.luengo@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0001-9238-3480>

Directora de la tesis:

Haizea Barcenilla García / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Fecha de lectura: **21/02/2023**

Link de la tesis en ADDI: <https://addi.ehu.es/handle/10810/60196>

90eko hamarkadako euskal testuinguruau, gorputzari lotutako adierazpen artistikoak areagotu ziren emakume artisten artean. Egun arte, garai hartako sorkuntzaren irakurketa "emakume artista" kategoriaren inguruan sortu da artearen historiatik, askotan artelanen nolakotasuna alde batera utziz. Garatzen ari den tokiko artearen historia feministaren ildotik abiatuta, tesi honen bitarbez, artelan horietako historiaratzea gorputzaren ardatzaren inguruan berrantolatzea proposatzen da. Zehazki, gorputza lotura garrantzitsutzat jotzen da 60ko hamarkadan jaiotako artisten lanak ikertzeko, eta, horrela, belaunaldi bereko esperientzia partekatuen inguruko irudi bat sortzeko.

Aurrenik, tesian aztergai diren artelanen inguruan sortutako diskurtsoak ikertzen dira. Horretarako, artearen historiako iturriak behatzen dira, artearen arlotik garatutako ikerketak antropologiatik egindako ekarpenekin osatuz, bereziki, Lourdes Méndezenekin. Diskurtsoen analisia, erakusketak ere hartzen dira kontuan, 90eko, XXI. mende hasierako eta azken urteetako hautaketa esanguratsua eginez. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko erakusketetan gorputz-joera artistikoak izan duen presentzia zehazten da.

Ondoren, garai hartzan emakumeen gorputz-arketipo artistikoekin zegoen harremana ikertzen da. Behaketa hau burutzeko, *Geu Emakumeok* aldizkari bizkaitar feministak eta *Erreakzioa-Reacción* kolektibo artistikoak sortutako fanzineak hartzen dira kontuan. Horrez gain, euskal testuinguruko artistek artelan ezagunen inguruan egindako berrinterpretazioak aztertzen dira, emakumezko irudikapen ezagunak berrikustean, zer nolako berrikuntza kritikoak eragin zituzten adierazteko.

En el contexto vasco de los 90, las manifestaciones artísticas ligadas al cuerpo aumentaron entre las artistas. Hasta la fecha, esas creaciones se han interpretado desde la historia del arte en torno a la categoría de "mujer artista", dejando frecuentemente de lado las características de las propias obras de arte. Siguiendo la historiografía feminista del arte local que se está desarrollando, esta tesis se propone reorganizar la historia de muchas de estas obras en torno al eje corporal. Concretamente, el cuerpo se considera un nexo de unión relevante para investigar las obras de artistas nacidas en los años 60, creando así una imagen en torno a las experiencias compartidas por una misma generación.

En primer lugar, se analizan los discursos surgidos en torno a las obras de arte que forman el objeto de estudio. Para ello, se observan las fuentes de la historia del arte, complementando las investigaciones desarrolladas desde el campo del arte con aportaciones desde la antropología, especialmente mediante Lourdes Méndez. En el análisis de los discursos se tienen igualmente en cuenta las exposiciones, con una selección significativa de los 90, principios del siglo XXI y la actualidad. En concreto, se detalla la presencia de la tendencia corporal artística en las exposiciones de la Comunidad Autónoma Vasca.

Posteriormente, se investiga la relación que existía en aquella época con los arquetipos artísticos corporales femeninos. Para llevar a cabo esta observación se tiene en cuenta la revista feminista vizcaína *Geu Emakumeok* y los fanzines creados por el colectivo artístico

Azkenik, gorputzaren inguruaren sortutako artelan anitzen corpusa sailkatzeko, hiru ibilbide tematiko proposatzen dira, honako gaien bidez: 1) gorputz sexuatura eta sexualitatea, 2) edertasunaren kanona eta 3) mozarroa eta izaki fantastikoak. Lehendabiziko atalean, aluari lotutako irudikapenak, ugalkortasunari buruzkoak eta harreman sexu-afektiboak irudikatzen dituzten artelanak aztertzen dira. Azken azpiatal horretan, masturbazioa, maitasun erromantikoaren kritika edota pornografia mintzagai dutenak batzen dira. Bigarren atalean, edertasunari eskainitakoan, hedabideetan zehar hedatzen diren idealaren kritikak aztertzen dira artelanen bitartez, emakumeen gorputzak objektu gisa erakustearen ondorioak, ispiluaren ikonografia eta dietaren kulturaren ingurukoak. Azkenik, mozarroen atalarekin ixten da ikerketa. Bertan, identitate anitzen esperimentazioa, azal eta jantzien inguruko sorkuntza eskultorikoak eta izaki fantastikoak jorratzen dituzten artelanak ikertzen dira.

Artelanak diskursoaren erdigunean jarri, paradigma aldaketa lortzen da. Generoa oraindik ere kontuan hartzen den arren, gorputza eta horri lotutakoak bihurtzen baitira protagonista. Are gehiago, diziplinartekotasunaren alde egiten da diskursoa sortzeko: literaturako, antzerkiko eta musikako adibideak balatzen baitira arte plastiko, teknologiko eta performatiboekin batera, gorputzaren inguruko sorkuntza hobeto ulertzeko.

Erreakzioa-Reacción. Además, se analizan las reinterpretaciones realizadas por artistas del contexto vasco sobre obras de arte conocidas, quienes, al revisar representaciones femeninas conocidas, expresaron innovaciones críticas.

Por último, para clasificar el corpus de las múltiples obras de arte creadas en torno al cuerpo, se proponen tres itinerarios temáticos: 1) el cuerpo sexuado y la sexualidad, 2) el canon de belleza y 3) el disfraz y las criaturas fantásticas. En el primer apartado se analizan las representaciones relacionadas con la vagina, la fecundidad y las obras de arte que representan las relaciones sexo-afectivas. En este último subapartado se unen las creaciones que tratan la masturbación, la crítica al amor romántico o la pornografía. En el segundo apartado, dedicado a la belleza, se analizan obras que critican el ideal que se difunde por los medios, las consecuencias de mostrar los cuerpos de las mujeres como objetos, la iconografía del espejo y la cultura de la dieta. Por último, se cierra la investigación con la sección de disfraces. En ella se investigan obras de arte que abordan la experimentación de identidades múltiples, las creaciones escultóricas en torno a las pieles y las prendas, así como los seres fantásticos.

Poniendo las obras de arte en el centro del discurso, se consigue un cambio de paradigma, dado que, aunque el género sigue siendo un elemento relevante, el cuerpo y lo vinculados a él se convierten en los protagonistas principales. Es más, se apuesta por la interdisciplinariedad para crear este discurso, puesto que se utilizan ejemplos literarios, teatrales y musicales, junto con artes plásticas, tecnológicas y performativas, para comprender mejor las creaciones referentes a lo corporal.